

Buruntzako San Martin: eliza baten historia

Buruntzako San Martin aztarnategia bat dator Andoaingo parrokia eliza zaharraren hondakinekin. Buruntza mendiko magalean kokatuta, Burdin Aroko irun baten oinetan, udalerrriak izan duen jendeztatze historikoaren erreferentzia nagusi modura agertzen zaigu gune hau.



Eliza 1419. urteaz geroztik dokumentatuta dago, haren sorrerari buruzko lekukotasunik aurkitu ez bada ere. XVI eta XVII. mendeetan hainbat birmoldaketa izan zituen, zeren, alde batetik, konponketak eta zabaltze-lanak egiteko premia sortu baitzen, eta beste alde batetik, bide osoan zehar garatze bidean zegoen gune indartsuarekin alderatuta gero eta egoera marjinalagoan baitzegoen. Hori dela eta, eztabaida bat piztu zen auzokoen artean, batzuek eliza gorde eta beste batzuek lekuz aldatu nahi zutelako.

Pixkanaka, azken iritzi horren aldekoak nagusituz joan ziren, harik-eta XVIII. mendearen erdialdean, Agustin de Leyza indianoak emandako diru-kopuru handi bati esker, parrokia berria herrigunetik hurbilagoko leku batean eraikitzeari ekin zioten arte. Eliza berria eraikitzen hasi zirenean, eliza zaharra hustu eta lurrera bota zuten, eta horren harria erabili zuten tenplu berria eraikitzeko. Gunea bazterrera utzia izan zen, eta poliki-poliki, andoaindarraren oroimen kolektibotik ezabatuz joan zen, guzti horren aztarna bakarra "Kanpu Santu Zarra" toponimoa izanik, orubearen izena alegia.

Arkeologia-interbentzioa (1995 – 2003)

1995. urtean, Buruntza Auzunera doan errepidearen ibilbidea aldatu zenean, bertan egindako lur-higidurek erasan zituen "Kanpu Santu Zaharra" izenarekin ezaguna den orubeari. Lan horiek eraikin baten hondakinak atera zituzten argitara, eta Aranzadi Zientzi Elkarteko adituek ordura arte desagerturik egondako San Martin elizako murrizkiak zirela baieztatu zuten.

1996. urtetik aurrera eta 2003. urtera arte, Andoaingo Udalak sustatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin, "Buruntzako San Martin Eliza" izenarekin bataiatu zen aztarnategia

ikertzeari eta bertan arkeologia-indusketak egiteari ekin zieten, Alex Ibañez Etxeberria arkeologoaren zuzendaritzapean –boluntario, ikasle eta Andoaingo herritar askoren laguntzarekin.

Arkeologia-interbentzioari esker, hurrenez hurrengo hiru tenpluren hondakinak aurkitu eta identifikatu ahal izan zituzten aztarnategian, hirurak San Martinen ohorez eraikiak, leku berean denak. Halaber, barruko eta alboko hilobiratze-guneak ere identifikatuak eta induskuak izan ziren, hortik ehorzte-ostilamendu ugari berreskuratu zituztelarik: orratzak, dominak, gurutzeak, arrosarioak, txanponak, e.a. Erdi Arokoak eta Aro Modernokoak denak.

Buruntzako San Martin aztarnategian hurrenez hurrengo 3 tenpluren aztarnak agerian uzten dituzten eraikin-hondarrak identifikatu dira, eta bat datoz Andoaingo parrokia zaharrak XIV eta XVIII. mendeen artean egin behar izan zituen zabaltze-lanekin.

Berant Erdi Aroko Tenplua: Iraun duen lehen tenpluaz –sortzetikoa ez denaz– ezagutzen duguna abside oktogonal bat da, sendotasun handiko kontra-hormak dituena. Nabearen hondakinik ez da kontserbatu. Kronologia aldetik XIV. mendekoa da, eta tamaina txikiagoko aurreko tenplu bat ordezkatu edo osatzen du nonbait. Andoaingo komunitatearen lehen eraikin handia izango zen.

Tenplu Gotikoa: XV. mendean zabalduz zihoan gizarte berri baten premiek eta irriek bide eman zioten oin berriko tenplu bat eraikitzeari, zeinak aurrekoa barnean hartuz, bere oinplanoa eta tamaina zabaldu baitzituen. Tenplu berria –kareharrizko harlanduz egina oso-osorik– nabe bakarrekoa eta abside oktogonalekoa izango da, zegokion perimetro osoak eta zimendu gehienek iraun dutelarik. Barrualdera zeramaten sarbideak bi atetan zehar gauzatzen ziren: bata oinetan zabalik eta bestea eskuin aldean, nabearen erdialdean.

Errenazimentuko Tenplua: Gipuzkoako gizarteak aro modernoan izan zuen zabaltze-faseak badu bere isla Andoainen, San Martin elizako traza-aldaketan eta handitzean ageri denez. Dokumentaturik dauden eraberritze-lan ugariak albo batera utzita, funtsezko aldaketa aldare nagusiaren aldean eginiko zabaltzea da, zeinari alboko bi kapera erantsi baitzitzaizkion, eraikina gurutze latindar itxurako eliza bilakatu zutenak. Murru eta kontrahorma berrien lodierak altuera handiko eraikina zela jartzen du agerian, eta ziur aski ganga-formakoa zen. Aldaketa hauek XVI eta XVII. mendeen artean egin ziren; baina berez ez da eraikin berri bat izango, aldaketen garrantzia ikusita hala dela irudi arren. Hau izango zen Andoaingo komunitateak XVIII. mendean eraitsi omen zuen tenplua, gurtza beste leku batean –gaur egungo elizan– kokatu ostean.

Bultzatzailea: Andoaingo Udala

Lankide: Gipuzkoako Foru Aldundia. Cultura Saila

Autor: Aranzadi Zientzi Elkarte